

Prentsa-oharra

IK4-TEKNIKERek eta iLine Microsystems enpresak I+G arloan lankidetzan aritzeko konpromisoa berritu dute

- ▶▶ *Euskal zentro teknologikoak ingeniartzako eta I+Gko zerbitzuak emango dizkio enpresa donostiarrari, hemostasiaren eremuan*
- ▶▶ *Akordioak epe luzearako harremana berresten du*

(Eibar, 2019ko maiatzak 22).- iLine Microsystems enpresa gipuzkoarra aditua da Point of Care mediku-diagnosirako gailuak diseinatzeko eta fabrikatzeko, eta hemostasiaren arlo klinikorako aritzen da lanean. Bada, IK4-TEKNIKERekin zuen lankidetzak hitzarmena berritu du, eta, horren arabera, euskal zentroak ingeniartzako eta I+Gko zerbitzuak emango dizkio iLine Microsystems enpresari, eskusibitate-araubidean, hemostasiaren sektorerako.

Atzo formalizatu zuten hitzarmena, enpresa donostiarrak Donostiako Teknologia Parkean dituen instalazioetan egindako protokolozko ekitaldi batean. Bertan, Alex Bengoa IK4-TEKNIKEReko zuzendari nagusiak eta Iñaki Sadaba iLine Microsystems-eko zuzendari nagusiak hartu zuten parte.

Azken hamarkadan, mundu-mailako erreferente nagusietako bat bihurtu da iLine Microsystems enpresa, hemostasiaren arlo klinikoan Point of Care mediku-diagnosirako gailu berritzaileak diseinatzeko eta fabrikatzeko. Hala, Point of Care diagnostikoan dauden premiei irtenbidea ematea dute xede iLine Microsystems-ek eremu horretan egiten dituen ikerketek, terapia medikoen eta praktika klinikoaren eraginkortasuna eta segurtasuna nahiz pazienteen bizi-kalitatea hobetze aldera.

Enpresak eta zentro teknologikoak sinatu duten hitzarmenarekin, beste urrats bat eman da bi erakundeek 2015etik duten lankidetzak-prozesuan.

Hitzarmenaren bidez, IK4-TEKNIKERek zeregin garrantzitsua beteko du iLine Microsystems enpresari teknologia transferitzeko misioan, eta, horri begira, hemostasiaren sektorean eskusiboak diren ingeniartzako eta I+Gko zerbitzuak emango dizkio. Zentro teknologikoa aditua da teknologia garatzen, eta, besteak beste, honako hauek egiten ditu: sistema integratu fidagarriak, gailu medikoetarako hardwarea eta softwarea (IEC62304 eta IEC60601 medikura araudien pean), ikuspen artifizial integratua, optoelektronika, multicore sistema fidagarriak, haririk gabeko komunikazioak eta zibersegurtasuna (gailu mediko segurueterako UL2900 araudiaren pean).

Zehazki, kontzeptu-proben bideragarritasun eta garapen-ikerketak egingo ditu zentro teknologikoak, iLine Microsystems enpresaren produktuetan funtzionaltasun edo prestazio berriak txertatu ahal izateko. Gainera, produktuaren bertsio berrien garapenean ere parte hartuko du, eta aholku emango dio ekoizpen eta fabrikazio-prozesuetan.

Bestalde, akordioari esker, iLine Microsystems enpresak aurrera egin ahalko du bere berrikuntza-prozesuan, eta, [hala nola merkatu estatubatuarra](#) irekitzen lagundu duen zentro teknologikoaren laguntzarekin, aditu eta aholkulari teknologiko gisa jardungo baitu, toki bereizgarria hartu eta sendotuko du merkatuan.

IK4-TEKNIKERi buruz

IK4-TEKNIKER zentro teknologikoak 35 urtetik gorako esperientzia du teknologia aplikatuaren ikerkuntzan eta hura enpresetara transferitzen, eta, denbora horren ostean, espezializazio-maila altua eskuratu du lau arlo handitan (fabrikazio aurreratuan, gainazalen ingeniartzan, produktu-ingeniartzan eta IKTetan), eta abangoardiako teknologia hori bezeroen premien zerbitzura jartzea ahalbidetzen du horrek.

iLine Microsystems enpresari buruz

iLine Microsystems enpresak Point-of-Care mediku-diagnostikorako gailuak diseinatzen eta fabrikatzen ditu, eta nazioarteko erreferentea da hemostasiarako gailuen arloan. Munduko bost kontinenteetako 50 herrialdetan baino gehiagotan aurki ditzakegu enpresaren produktuak, eta eskudun agente erregulatzailleek gailuak erabili ahal izateko erregistro nagusiak onetsi dituzte, kalitate-estandar zorrotzenen pean. Konpainiak erabiltzen duen

teknologia diseinu mikrofluidikoetan eta produktuak ezaugarri oso berritzailez hornitzen dituen Lan-on-a-Chip kontzeptu iraultzailean oinarrituta dago.

Informazio gehiago

////////////////////////////////////

IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz

Itziar.cenoz@tekniker.es | Tel. 943 256 929

////////////////////////////////////

GUK | Eider Lazkano

eider@guk.es | Tel. 620 807 344

////////////////////////////////////